

2018ko irailaren 21a, ostirala

BESTELAKO XEDAPENAK

KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA

4616

EBAZPENA, 2018ko irailaren 12koa, Kulturako sailburuordearena, zeinaren bidez ematen baita 2018. urtean publikoak ez diren artxiboak antolatzeko, digitalizatzeko eta zabaltzeko jardueretarako emandako laguntzen berri.

2018ko ekainaren 27an argitaratu zen EHAAn Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko ekainaren 13ko Agindua, publikoak ez diren artxiboak antolatu, digitalizatu eta zabaltzeko diru-laguntzak emateko araubidea ezartzen duena.

Agindu horren 13.2 artikulua dioenez, Kulturako sailburuordeak emandako ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da. Horrek ez du esan nahi onuradun gertatzen direnei banakako jakinarazpena egingo ez zaienik. Halaber, Kultura Ondarearen Zuzendaritzaren ebazpen-proposamena ikusita, hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Argitara ematea Kultura eta Hizkuntza Politikako sailburuaren 2018ko ekainaren 13ko Aginduaren babesean emandako diru-laguntza guztiak eta horien guztien onuradunak. Zerrenda ebazpenari atxikitako eranskinean dago.

Bigarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea, jendeak horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 12a.

Kulturako sailburuordea,
JOSÉ ÁNGEL MARÍA MUÑOZ OTAEGI.

2018ko irailaren 21a, ostirala

ERANSKINA

Onuraduna	Proiektua	Zenbatekoa
Aranzadi Zientzia Elkarte	Jesus Elozegi Irazustaren egunerokoa digitalizatzea, Gerra Zibila (4. fasea)	1.000,00 €
Behar Zana Kirol Elkarte	Pilota elkartearen artxiboa digitalizatzea	688,00 €
Bilboko Mediku Zientzien Elkarte	Artxibo-funtsa digitalizatzea (1. fasea)	3.816,00 €
Duque de Estrada Tejada, Ricardo	Duque de Estrada familiaren artxiboko Gipuzkoako maiorazkoak antolatzea eta digitalizatzea (2. fasea)	18.000,00 €
Euskal Herriko Artzain Txakurren Txapelketa Antolatzaileen Elkarte	Artxiboa antolatzea (1. fasea)	4.440,00 €
Euskal Herriko Txistularien Elkarte	Artxibo-funtsa antolatzea, digitalizatzea eta zabaltzea (2. fasea)	7.344,00 €
Fundación Cultural Privada Indalecio Prieto	Lehen Eusko Jaurlaritzaren eta Euskadiko Gerra Zibilaren funtsa tratatzea, deskribatzea eta digitalizatzea (2. fasea)	12.000,00 €
Intxorta 1937 Kultur Elkarte	Dokumentu historikoak digitalizatzea	4.037,00 €
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia (I. programa)	Uriarte-Lecina-Escalera eta Loiola funtsak sailkatzea, ordenatzea eta deskribatzea	12.638,00 €
Jesusen Lagundia-Loiolako Santutegia (II. programa)	Misioetako funtsa digitalizatzea (Afrika, Amerika, Asia eta Ozeania, XVII., XVIII. eta XIX. mendeak)	16.800,00 €
Komunikazio Biziagoa SAL	Argia aldizkariaren argazki-funts historikoa antolatzea eta digitalizatzea	8.273,00 €
Murua Lezama-Leguizamon, M. ^a Carmen	Mura Etxeko artxiboa digitalizatzea (2. fasea)	16.500,00 €
Real Automóvil Club Vasco Navarro	Artxibo-funtsa antolatzea (1. fasea)	12.000,00 €
Sancho el Sabio Fundazioa (I. programa)	Yrizar (Bergara) familiaren artxiboko zenbait atal antolatzea, deskribatzea eta informatizatzea (3. fasea)	13.880,00 €
Sancho el Sabio Fundazioa (II. programa)	Yrizar artxiboa digitalizatzea (2. fasea)	9.000,00 €
Serrats Urrecha, Gonzalo María	Arriola-Urrecha (Rocaverdeko markesak) familiaren artxiboa deskribatzea eta digitalizatzea	14.000,00 €
Zavala Etxeko Artxiboaren Fundazioa	Familia artxiboak eta dokumentu-ondare diren dokumentu-funtsak deskribatzea. Barrenechea artxiboa katalogatzea	15.180,00 €
Guztira		169.596,00 €